Zangoza / 2022

# KULTUR AGENDA

## urtarrila



Ayuntamiento de Sangüesa/Zangoza

PALACIO VALLESANTORO

Nafarroako Gobernua

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

## Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea

**Kultura-zerbitzuaren arreta ordutegia:** astelehenetan 09.30etik 14:00etara eta asteartetik ostiralera 9:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

**Erakusketa Aretoetako Ordutegia:** aasteartetik larunbatera, 11.30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

**Helbidea:** Alfontso Borrokalaria Karrika 20. Tfnoa: 948 870 251.

**Gonbidapenak hartzea:** pertsona eta jarduera bakoitzeko gehienez 4 sarrera jaso ahal izanen dira. Sarrerak ez dira zenbakidunak eta ikusleak iritsiera-ordenaren arabera eseriko dira. Gonbidapenak **urtarrilaren 4tik aurrera** jaso ahal izanen dira Kultura-etxean asteartetik ostiralera 12: 00etatik 14: 00etara eta 19: 00etatik 21: 00etara, 948 870251 telefonora deituz edo posta elektronikoz infocultura@sanguesa.es helbidean.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es. Facebooken, Instagramen eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agendari segi diezaiokezu.

www.facebook.com/culturasanguesa www.instagram/com/culturasanguesa

## Karmengo Entzunaretoa

**Aldez aurreko salmenta: Urtarrilaren 4tik aitzina** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, eta Internetetik eguneko 24 orduetan www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrien bidez. **Argibide Telefonoa:** 948 870 251.

**Salmenta txartel-leihatilan antzezpen egunetan:** Karmengo Entzunaretoko txartel-leihatila zabalik egonen da (sarrerarik izanez gero) saioa hasi baino ordubete lehenago.
**Argibide Telefonoa:**948 870 632.

Ikuskizun guztietarako sarrera gehienezko kopurua laukoa izanen da lagun eta ikuskizun bakoitzeko. Ez dira onartuko telefonoz eginiko erreserbak. Behin hartuz gero, ez da aldaketarik, ezta itzultzerik ere onartuko

Ikuskikunaren etena sarreren zenbatekoa itzultzeko kausa bakarra izango da.

**Beherapenak Gazte txartelarekin:** 14 eta 30 urte bitartekoa bazara, hala adierazten den saioetan beherapenez gozatu ahal izanen zara gazte txartela erakutsiz.

**ENTZUMENA HOBETZEKO ANTZERKI IRISGARRIA**
Karmengo Entzunaretoak badauka begizta magnetikoko sistema bat inguruko hotsa kendu ahal izateko. Hartara, entzumen-arazoak dituzten lagunek ikuskizunez hobeki gozatzen ahal dira. ERNE! sistema hau audiofonoa erabiltzen dutenek ez ezik ongi entzuten ez dutenek ere erabiltzen ahal dute inolako aparaturik eraman ez arren.
Bi kasuetan entzungailua edo begizta aretoko langileei eskatu behar zaizkie.

**ANTZERKI IRISGARRIA MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN LAGUNENDAKO**
Karmengo Entzunaretoak mugikortasun murriztua duten lagunendako gune bat gordetzen du. Eserleku hauetako bat hartu behar bada edo erreserba hau egiteko laguntza behar baduzue, jarri harremanetan Kultura-zerbitzuarekin infocultura@sanguesa.es posta elektronikoan edo deitu 948 870 251 telefonora.

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman. Datuak babesteko legea www.sanguesa.es webgunean kontsulta ditzakezu.

D.L.: NA 1735-2012

## aurkibide kronologikoa

# Zangoza / 2022

# KULTUR AGENDA

## urtarrila











| | | | |
|---|---|---|---|
| **1** | La | Erakusketa "Olentzerok 50 urte" (urtarrilaren 9a bitarte) | 4. orr. |
| | | Eguberriko haur-lanen erakusketa (urtarrilaren 9a bitarte) | 4. orr. |
| | | Erakusketa "Carteles para un camino" (urtarrilaren 26a bitarte) | 5. orr. |
| **2** | Ig | | |
| 3 | Al | | |
| 4 | As | | |
| 5 | Az | Erregeen Kabalgata | 10. orr. |
| **6** | Og | Misterio de Reyes Autoa | 10. orr. |
| 7 | Os | | |
| 8 | La | | |
| **9** | Ig | | |
| 10 | Al | | |
| 11 | As | | |
| 12 | Az | 900 Urteurrena. Erakusketaren inaugurazioa "Santa María, relato en imágenes" (urtarrilaren 30a bitarte) | 4 eta 10 orr. |
| 13 | Og | 900 Urteurrena. Performance poetikoa | 11. orr. |
| | | 900 Urteurrena. Hitzaldia "La danza de la muerte en el Castillo de Javier" | 11. orr. |
| 14 | Os | 900 Urteurrena. Kamishibai | 11. orr. |
| | | 900 Urteurrena. Hitzaldia "La psicostasis en el Románico. Portada de Santa María de Sangüesa" | 11. orr. |
| 15 | La | Antzerkia. "Ganar" | 6. orr. |
| **16** | Ig | | |
| 17 | Al | | |
| 18 | As | | |
| 19 | Az | Jaiak San Sebastianen ohoretan | 7. orr. |
| 20 | Og | Jaiak San Sebastianen ohoretan | 8. orr. |
| | | Familia antzerkia. "Mari Pompas" | 6. orr. |
| 21 | Os | Jaiak San Sebastianen ohoretan | 8. orr. |
| 22 | La | Jaiak San Sebastianen ohoretan | |
| | | Kontzertua. "125 urte: Musika Banda bat Zangozarendako" | 9. orr. |
| **23** | Ig | Jaiak San Sebastianen ohoretan | 8. orr. |
| | | Zinea. "Peter Rabbit 2. A la fuga" | 5. orr. |
| 24 | Al | Musika Eskolako kontzertua | 11. orr. |
| 25 | As | Ipuin-kontalaria. "Sueños de pez" (gaztelaniaz) | 9. orr. |
| 26 | Az | Ipuin-kontalaria. "Japoniara" (euskaraz) | 9. orr. |
| 27 | Og | Mendiko jardunaldiak. Juanito Oiarzabal | 12. orr. |
| 28 | Os | Mendiko jardunaldiak. Mendi Film 2021 Saria | 12. orr. |
| 29 | La | Musika. "Buen viaje, abuela Braulia!" | 7. orr. |
| **30** | Ig | | |
| 31 | Al | | |

Azaleko irudia: "Mari Pompas".

# Erakusketak




## "OLENTZEROK 50 URTE"

### URTARRILAREN 9RA BITARTE

Aurten gure Olentzeroren urtebetetzea da! 50 urte igaro dira Zangozako talde batek ikazkin maitagarria lehenengoz Zangozako kaleetatik atera zuenetik. Ordudanik ilusioz bete ditu, abenduaren 24ko gauean, txikiak eta ez hain txikiak.
Hori ospatzeko argazki erakusketa antolatu dugu, 50 urte hauetan Zangozan Olentzerok izan duen ibilbidea gogoratzeko.

**Antolatzailea:** Zangozako Ikastola.
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.
**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.



## EGUBERRIKO HAUR-LANEN ERAKUSKETA

### URTARRILAREN 9RA BITARTE

**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko 2. Solairuko Erakusketa Aretoa.
**Laguntzaileak:** 0tik 3 urtera bitarteko Zentroa, Luis Gil Ikastetxe Publikoa eta Zangozako Ikastola eta Luna Haur-zentroa.





## "SANTA MARÍA, RELATO DE IMÁGENES"
**Argazki-erakusketa**

### URTARRILAREN 12TIK 30ERA

Astrolabio Erromanikoa elkarteak, Nafarroako Erromanikoa aztertzen eta proiektatzen duenak, Zangozara hurbilduko du bere TM! proiektua. Bere gai nagusia Erdi Aroko antzerkia eta arte eszenikoekin lotutako gai ikonografikoak dira, ondare monumental eta immaterialean.
Santa Mariaren portadan, bere irakasteko eta entretenitzeko helburuekin, gai biblikoak, gerrakoak, lanbideak, dohatsuak, akrobatak, musikariak, dantzariak, bekatuak, animalia fantastikoak, maiestak, tetramorfoak eta apostolutza erakusten ditu.

**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.
**Antolatzailea:** Astrolabio Románico Elkartea.

**Erakusketa Aretoko bisita ordutegia:** Asteartetik larunbatera, 11:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

# Erakusketak



## "CARTELES PARA UN CAMINO"

### ABENDUAREN 29TIK URTARRILAREN 26RA

Donejakue Bidea milaka erromes eta ibiltari lagundu dituzten mito eta ikurren artxibo bizia da. "Carteles para un Camino, 100 años de ilustración jacobea" Done Jakueren Kontseiluak antolatutako erakusketa da, Xacobeo 2021-22 delakoaren karietara.
Espainiako eta Europako historiaren protagonista den Donejakue Bidearen ikonografia eta irudikapen erlijiosoa, artistikoa, literarioa eta ideologikoa errepasatzen dira kartel, liburuxka eta beste euskarri batzuen gaineko marrazkiaren bidez.

**Lekua:** Cantolaguako Pasealekua, Osasun Etxearen ondoan.
**Antolatzailea:** Kultura eta Kirol Ministerioa.
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Zinea




## "PETER RABBIT 2. A LA FUGA"

### IGANDEAN, URTARRILAK 23

Beak, Thomasek eta untxiek familia bat bezala egin dituzte bakezkoak, baina ahalegin hobeak egin dituzten arren, Peterrek ez dirudi bere ospe bihurria gainetik kentzen duenik. Lorategitik harantzago menturatuz, Peter hiriko kale ezegokienetan barneratzen da, non bere bihurrikeriak preziatuagoak diren, baina bere familia iletsua arriskuan dagoenean, Peterrek erabaki beharko du nolako untxia izan nahi duen.

**Ikusle guztiendako.** 9 urtetik beherakoek helduek lagunduta joan behar dute.
**Iraupena:** 93 minutu.
**Ordua:** 17:30.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.
**Sarrerak:** 3 €.
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Arte Eszenikoak
## Karmengo entzunaretoan



**ANTZERKIA. KOMEDIA**

**"Ganar"**

TXALO PRODUCCIONES

### LARUNBATEAN, URTARRILAK 15

**Antzerkilaria:** Jon Plazaola.

"Parte hartzea da garrantzitsuena". Esaldi hori buruan sartu zigunak gezur galanta sinestarazi nahi izan zigun. Gaur egungo gizartea lehiakorra, krudela eta fidagaitza da. Baina Felixek, istorio honen protagonistak, ez du ezertxo ere irabazi bere bizitza guztian. Bere existentzia patetikoari zentzu ematen dion konfort- eremuan bizi da. Baina gaur gauean, ordea, Felixek sari bat jasoko du. Irabazi egingo du! Galtzen irakatsi digute, baina irabazten ba al dakigu?"

**Ordua:** 20:00. **Iraupena:** 85 minutu.
**Ikusleak:** Gazteak eta helduak.
**Aldez aurreko sarrerak:** 8 €.
**Txartel-leihatilan:** 10 €.
**Sarrerak gazte txartelarekin:** 5 €. Bai entzunaretoan, bai interneten bidez erosita, gazte txartela aurkeztu beharko da txartel-leihatilan.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.
**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea Elkartea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.



**FAMILIA ANTZERKIA**

**"Mari Pompas"**

JOSÉ LUIS LAGO PRODUCCIONES ARTÍSTICAS

### OSTEGUNEAN, URTARRILAK 20

Mari Pompas, Mary Popins umezain mitikoaren birbiloba, pozez gainezka dagoen nerabe zoro bat da, bere akatsez barre egiten duena eta bere talentuez harrotzen dena, besteak beste xaboi-ponpak sortzeko dohainaz. Bere birramonak bezala, ekialdeko haizearekin etorri da Bob eta Blim-i laguntzera, gainontzekoak ez bezalako bi punpa. Mari Pompasek fantasia eta ilusioaren mundura eramanen du ikusleak burbuilen forma, tamaina eta koloreekin harrituta utziz.

**Ordua:** 17:30. **Iraupena:** 50 minutu.
**Ikusleak:** Familiak eta 4 urtetik gorako haurrak.
**Aldez aurreko Sarrerak:** 3 €.
**Leihatilako Sarrerak:** 5 €.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.
**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea Elkartea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.

# Arte Eszenikoak
Karmengo entzunaretoan





**MUSIKA**

**"Buen viaje, abuela Braulia!"**

JAZZBANA ENSEMBLE

## LARUNBATEAN, URTARRILAK 29

**Interpretatzaileak:** Irati Bilbao, ahotsa; Oskar Lakunza, saxofoi eta gitarra, Álvaro Zarzuela, tronboia, helikoia eta pianoa; Iñigo Cuenca, tronpeta eta fliscornoa; Aritz Luzuriaga, kontrabaxua, baxua eta perkusioa, Rakel Arbeloa, bateria eta perkusioa.

"Buen viaje, abuela Braulia!". Musika modernoaren historia kontatzen du, duela 100 urte baino gehixeago New Orleansen estiloarekin hasi zenetik 50eko hamarkadako Bebop generoraino. Sarahk, bere protagonistak, bere amonaren egunkaria irakurriko digu, Estatu Batuetara bidaiatu zuen bateria-jotzailea, musikaren historiako une errealak birsortzen eta bandarekin modu didaktiko eta dibertigarrian antzezten.

**Ordua:** 19:00. **Iraupena:** 60 minutu.
**Ikusle guztiak 6 urtetik aurrera.**
**Aldez aurreko sarrerak:** 6 €.
**Txartel-leihatilan:** 8 €.
**Sarrerak gazte txartelarekin:** 5 €.
Bai entzunaretoan, bai interneten bidez erosita, gazte txartela aurkeztu beharko da txartel-leihatilan.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa
**Laguntzaileak:** Nafarroako Antzoki Sarea Elkartea (NAS) eta Nafarroako Gobernua.

# Zangozako jaiak: San Sebastianen ohoretan antolaturiko eginkizunak 2022



## ASTEAZKENEAN, URTARRILAK 19

**20:00etan.** Udaletxearen gibeleko balkoitik, San Sebastianen ohoretan antolaturiko ekitaldiak iragarriko dituen suziria. Zangozako Gaiteroek eta "Juan Francés de Iribarren" Musika Eskolako Banda ekitaldia girotuko dute.
**21:00etan.** Bi zezensuzko Karrika Nagusian.

# Zangozako jaiak: San Sebastianen ohoretan antolaturiko eginkizunak 2022



## OSTEGUNEAN, URTARRILAK 20

**7:00etan.** Auroroen irteera.
**9:00etan.** Dianak Zangozako Udal Banda eta Gaiteroen eskutik.
**11:30ean.** Zangozako Udala - Bandera, Mazukariak, Udal Banda Elkartea, Erraldoi eta Buruhandien Udal Konpartsa, Gaiteroak, Rocamador Dantzari Taldea eta Zangozako Txistulari Taldea - lagun dituela, Santiago Elizara joanen da San Sebastianen Prozesioan esku hartzera. Jarraian, Meza Nagusi Ospetsua Zangozako Auroroekin.
**17:30ean.** "Mari Pompas" familia antzerkia Karmengo Entzunaretoan.
**19:00etan.** Dantzagarriak Zangozako Gaiteroekin.
**20:00etan.** Bi zezensuzko Karrika Nagusian.

## OSTIRALEAN, URTARRILAK 21

**20:00etan.** Dantzagarriak Zangozako Gaiteroekin.
**21:00etan.** Bi zezensuzko Karrika Nagusian.

## LARUNBATAN, URTARRILAK 22

**11:30ean.** Erraldoi eta Buruhandien Udal-konpartsaren irteera.
**18:30ean.** Udal Banda Elkartearen kontzertua Karmengo Entzunaretoan.
**20:00etan.** Dantzagarriak Zangozako Gaiteroekin.
**21:00etan.** Bi zezensuzko Karrika Nagusian.
**23:00etan.** Discomóvil Diapasonic Javier Chamorrorekin eta Gabriel Landarech-ekin Arkupeetan.



## IGANDEAN, URTARRILAK 23

**11:30etik 14:30era.** Jota Erronda Zangozako karriketatik. Irteera eta festa amaiera Arkupeetan.
**17:30ean.** "Peter Rabbit 2. A la fuga" familia zinea Karmengo Entzunaretoan.
**19:15ean.** Dantzagarriak Zangozako Gaiteroekin.
**20:00etan.** Bi zezensuzko Karrika Nagusian.

**Laguntzaileak:** Zangoako Gaiteroak, "Juan Francés de Iribarren" Musika Eskola, Rocamador Dantzari Taldea, Zangozako Txistulari Taldea, Erraldoi eta Buruhandien Udal Konpartsa, Zangozako Udal Banda Elkartea eta Zangozako Auroroak.

# Udal Banda Elkartea




**KONTZERTUA**
**"125 urte: Musika Banda bat Zangozarendako"**

## LARUNBATEAN, URTARRILAK 22

Taldeak ibilbide musikal bat eginen du bere historian zehar, garai ezberdinetan arrastoa utzi duten lanekin, zuzendarien zigilu nahasezinarekin. Banda bere alderdi ezberdinetan ezagutzeko aukera paregabea: kontzertistikoa eta karrikakoa, erlijiozkoa eta soziala edo martziala eta dantzagarria 125 urteko historian zehar.

**Zuzendaria:** Imanol Blasco Itoiz.
**Ordua:** 18:30. **Iraupena:** 75 minutu. **Sarrerak:** 5 €.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.
**Antolatzailea:** Zangozako Udal Banda Elkartea.

# Ipuin-kontalaria



**"SUEÑOS DE PEZ"** (Gaztelaniaz)
VIRGINIA MORIONES

## ASTEARTEAN, URTARRILAK 25

Oilo ez da besteak bezalako arraina, oso ausarta da eta zerbait gehiago izatea du amets, nahiz eta bere ametsek itsasotik urrun eraman.



**"JAPONIARA"** (Euskaraz)
BIRJIÑE ALBIRA

## ASTEAZKENEAN, URTARRILAK 26

Japonia uharte ugariz osatutako herrialdea da, eta, dirudienez, uharte bakoitzean milaka istorio daude entzungai: txorien istorioak, amona salbatzaileenak... Nik ez dakit bere hizkuntzan hitz egiten, baina bai bere istorioak kontatzen. Entzun, sinestezinak dira eta.

**Ikusleak:** 3 eta 8 urte bitarteko umeak.
Adingabeei helduek lagundu behar diete.
**Doako sarrera edukiera bete arte.**
Gonbidapenak aldez aurretik hartu behar dira.
**Ordua:** 18:30.
**Iraupena:** 60 minutu gutxi gorabehera.
**Lekua:** Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erabilera Anitzeko Aretoa.
**Laguntzailea:** Nafarroako Gobernua.

# Gabona





## ERREGEEN KABALGATA

### URTARRILAK 5, ASTEAZKENA

Ibilbidea jakitera emanen da.
**Ordua:** 19:00.
**Antolatzailea:** Kabalgataren Batzordea.

## MISTERIO DE REYES AUTOA

Egilea: Aita Jose Legarda (Kaputxinoa).

### URTARRILAK 6, OSTEGUNA

**11:30ean:** Misterio de Reyes Autoaren antzezpena.
**12:30ean:** Santiago Elizan Errege Meza Zangozako "Virgen del Rosario" Auroroen Elkarteak abesturik.
**Antolatzailea:** Misterio de Reyes Elkartea.

# Zangoza sortu zeneko 900. Urteurrena 1122-2022




2022an Zangoza egungo kokalekuan sortu zeneko 900. urteurrena ospatuko da, Alfontso Borrokalaria erregeak Forua eman ziolako.
Gertaera hori ospatzeko, Zangozako Udala 2022. urtean eginen diren jardueren programa oso bat prestatzen ari da.
Urtarrilean zehar, Astrolabio Elkartearekin batera, hiriko ondare historiko-artistikoa nabarmentzeko jarduera hauek antolatu dira:

### ASTEAZKENEAN, URTARRILAK 12

## INAUGURAZIOA ETA "Santa María, relato de imágenes" ERAKUSKETARA BISITA GIDATUA

**Ordua:** 19:00.
**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa (beheko solairua).

## Zangoza sortu zeneko
# 900. Urteurrena 1122-2022

### OSTEGUNEAN, URTARRILAK 13

**PERFORMANCE POETIKOA**

Inma Biurrun, Silvia Maranmbio, Sagrario Lecumberri eta Teresa Ramos emakume olerkarien performance poetikoa.

**Ordua:** 19:00.
**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.



**HITZALDIA**

**"La danza de la muerte en el Castillo de Javier"**

**Hizlaria:** Alicia Ancho Villanueva.
**Ordua:** 19:30.
**Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.

### OSTIRALEAN, URTARRILAK 14

**KAMISHIBAI**

**"Herrero Regin y la espada de Sigurd"**

Ipuinak irudien bidez kontatzea. Aurkezle eta kontaria: Iosu Osta.

**Ordua:** 19:00. **Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.



**HITZALDIA**

**"La psicostasis en el Románico. Portada de Santa María de Sangüesa"**

**Hizlaria:** Clara Fernández Ladreda.
**Ordua:** 19:30. **Lekua:** Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Hitzaldi Aretoa.

**Doako sarrera edukiera bete arte.** Aldez aurretik gonbidapenak hartu behar dira.

# Juan Francés de Iribarren Musika Eskola



**Zangozako "Juan Francés de Iribarren" Musika Eskolako ikasleen Ganbera-musikako kontzertua**

### URTARRILAK 24, ASTELEHENA

**Ordua:** 19:30.
**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.

# Mendiari buruzko jardunaldiak






## URTARRILAK 27, OSTEGUNA

### PROIEKZIOA

### Juanito Oiarzabal, 2x14x8000 Proiektua, Lhotseko (8.516 m. Nepal) bigarren igoera

“Planetako hamalau mendi handienetako gailurrak eskalatzea zailegia, gogorregia eta arriskutsuegia da, behin lortu duten alpinista bakarretako inork berriro eskalatzea inoiz pentsa ez dezan... baina horrek motibatzen nau. 1995ean, «Hamalauak» igo ahal izanen nituela konturatu nintzen. Eta azkenik 99ko udaberrian, Annapurnako gailurrean, nire ibilbide berezia amaitu zen. Hori lortu duen seigarren gizona izan nintzen. Mugarri horrek alpinismoaren mundu guztiaren aintzatespenak ekarri zizkidan. Baina amaierarik ez...”.

Juanito Oiarzabalek ikusentzunezko proiekzioekin, hitzaldiekin, eztabaidekin, solasaldiekin eta abarrekin uztartzen du bere mendi jarduera, publiko mota guztiei zuzenduta, bai kirol klub edo erakundeei, bai erakunde edo entitate kulturalei.

**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.
**Ordua:** 20:00.
**Sarrerak:** 3 €.

## URTARRILAK 28, OSTIRALA

### 2021EKO MENDI FILM 2021 SARITUTAKO PELIKULA

**Lekua:** Karmengo Entzunaretoa.
**Ordua:** 20:00.
**Sarrerak:** 3 €.

**Antolatzailea:** Zangozako Kirol Patronatua.
**Laguntzailea:** Vallesantoro Jauregia/Zangozako Kultura-etxea.